

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro, siendo las 9,00 horas, del día 4 de octubre de 2021, se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres./as Concejales/as, Don José María Eciolaza Ochoa, Don Juan Luis Fermin Gil García, Dña. Teresa Bidaurreta, Dña. Miren Nekane Nuño Iturri, Dña. Ainara Ekisoain y Dña. Leire Remiro Esnoz, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Irure.

Previo al inicio del primer punto del orden del día, la concejala de Haize Morea, Sra. Remiro, la concejala de EH Bildu Erroibar, Sra. Ekisoain y el concejal de AIVE Sr. Gil, informan que van a grabar la sesión.

UNICO.- PARQUE EOLICO NAVARRA 2, APROBACION ALEGACIONES JURIDICAS Y AMBIENTALES

Toma la palabra el alcalde que en relación con las alegaciones al Parque Eolico Navara 2, informa que en la comisión celebrada donde se analizaron las diferentes alegaciones preparadas por los asesores contratados por el Ayuntamiento, por un lado las realizadas por Hector Nagore y por otro las formuladas por Ekilan, se quedó en incluir algunas de las apreciaciones y consideraciones efectuadas por los diferentes grupos, que es lo que se ha incluido en el último documento trasladado a los corporativos, dando a su vez por buenas las alegaciones inicialmente preparadas por Fermin Izco.

A continuación da lectura al último escrito redactado por el letrado Hector Nagore que dice lo siguiente:

APORTACIONES MUNICIPALES A LAS ALEGACIONES

Durante el análisis de los escritos de alegaciones elaborados por Ekilan y Nagore Abogados & Asociados, efectuado en la sesión de trabajo celebrada el día 30 de septiembre de 2021, se efectuarán las siguientes observaciones complementarias que ahora se recogen como parte integrante de las mismas y se concretan en las siguientes:

a).- Las balsas que pueden resultar afectadas forman parte del sistema antiincendios forestales de la zona, por lo que deben reponerse en debidas condiciones, para su uso.

b).- Al margen de las dudas que plantea el acceso desde la carretera NA-2330 (actividades, inundabilidad, etc.) resulta imprescindible la mejora sustancial de dicha carretera que se ha convertido en acceso principal de los vecinos del Valle.

c).- Debe considerarse el núcleo de Urniza a efectos de estudio de ruidos, ya que existen personas empadronadas en dicho núcleo.

d).- *Resulta incompleto, a todas luces, el estudio de afecciones a la avifauna, además no se hace referencia alguna a las palomas migratorias, cuya caza supone relevantes ingresos para el municipio.*

e).- *Debe preverse la mejora sustancial del camino que sube desde Larraingoa.*

f).- *No existe un estudio suficientemente detallado sobre la afección del parque al paisaje del Valle de Erro que obviamente se ve enormemente afectado, y dicho estudio debe ponerse en relación con valores turísticos del Valle, ya que uno de los más relevantes es precisamente el paisaje.*

Anexo que se debe añadir, a las alegaciones ya presentadas anteriormente y que junto con las formuladas por Ekilan, es lo que se trata hoy de aprobar.

Toma la palabra la concejala Nuño que desea realizar alguna apreciación a lo leído, por ejemplo, pregunta, si lo que se menciona sobre que la carretera NA-2330, se ha convertido en acceso principal de los vecinos del Valle, a todos les parece que es así, ya que es un punto que a ella no le parece que se dijo en comisión. Contesta el concejal Sr. Eciolaza que igual no es la principal pero desde luego cada vez se utiliza más. También le ha chocado lo que se dice de las palomas, ya que en la comisión quedó claro que eso no afectaba para nada. Le parece que lo leído no recoge lo que se dijo en esta mesa en dicha reunión. Se contesta por el alcalde y el concejal Sr. Eciolaza, que es verdad que de ahí no pasan palomas pero les parecía bien que se estudiara el tema.

Respecto a la aprobación del texto, pregunta la concejala Sra. Nuño como se va a llevar a cabo, si se va a aprobar alegación por alegación o todo el documento en su conjunto. Contestando el alcalde que se vota el documento en su conjunto.

Toma la palabra la concejala Sra. Ekisoain, que manifestando que su grupo EH Bildu Erroibar va a votar en contra, da lectura a un escrito que se transcribe a continuación y que motiva las razones del sentido de su voto:

“EH Bildu Erroibar decimos que no a las alegaciones 1,2,3,4,5 y 7 y en general al proyecto de parque eólico en nuestro valle por las siguientes razones:

No encontramos la parte beneficiosa para el valle de este proyecto por ningún lado, ni siquiera tenemos los datos del posible beneficio económico. Las afecciones medioambientales, en cambio, son evidentes (flora, fauna, paisaje, contaminación acústica y visual...)

No vemos compatible el proyecto con el desarrollo de carácter ganadero, forestal y turístico que contempla nuestro plan urbanístico; no va a fijar población, y no va a crear ningún puesto de trabajo directo y quizá tampoco indirecto.

Vemos la necesidad de una moratoria de los macroproyectos, un debate social y una buena planificación del modelo energético para Navarra. Recordar que el Gobierno de Navarra ya marcó una ruta en el Plan Energético Navarra 2030, en el cual se trazaron unas líneas a seguir, que este parque eólico no cumple.

Navarra es una comunidad excedente en energía eólica (produce más de lo que consume) y los parques eólicos proyectados en dicho plan ya están construidos.

Es necesario reflexionar sobre el modelo energético y de consumo y buscar alternativas con proyectos pequeños y descentralizados (proyecto Piztu, proyectos de autoconsumo, comunidades energéticas...)

Por todo ello votamos en contra, porque consideramos que no son las alegaciones que nos representan, ni a nuestro grupo ni a parte de la ciudadanía de Erroibar.”

La concejala Sra. Nuño añade, que si se hubiera hecho separadamente iban a votar en contra de las alegaciones 1,2,3,4,5 y 7 y a favor del resto que si les parecían correctas, pero al hacerlo conjuntamente, su voto es negativo.

Seguidamente toma la palabra la concejala Sra. Remiro, que manifiesta que se va a abstener, dando lectura también al escrito de su grupo Haize Morea, que explica los motivos de dicha abstención.

“Hoy tenemos que votar la aprobación del texto de las alegaciones que el Ayuntamiento del Valle de Erro, va a presentar a Gobierno de Navarra, en relación al anteproyecto del Parque Eólico Navarra 2, presentado por SACYR. Nuestro voto va a ser la abstención.

No podemos votar en contra, porque consideramos que sería una irresponsabilidad por parte del Ayuntamiento no hacer uso de su derecho de presentar alegaciones ante un proyecto de tal envergadura. De hecho, esa es la razón por la que junto con el grupo municipal del EhBildu Erroibar, decidimos provocar la sesión extraordinaria del pasado mes de Agosto. Era increíble la pasividad que observábamos en el grupo de gobierno, y en especial en el alcalde, ante una situación como esta.

Aun sabiendo de la complejidad del procedimiento administrativo de un proyecto de este calibre, nosotras considerábamos indispensable que la ciudadanía del Valle de Erro, tuviera la máxima información posible del anteproyecto, y así mismo, la oportunidad de expresar su opinión sobre el mismo a través del cauce de la presentación de alegaciones.

Del mismo modo, impulsamos y propusimos, de nuevo junto con EhBildu Erroibar, la posibilidad de estudiar y preparar alegaciones a presentar como Ayuntamiento, es decir en representación de toda la ciudadanía del Valle.

Pero tampoco podemos votar a favor.

No podemos votar a favor de estas alegaciones, porque los documentos que hoy nos presenta el alcalde en esta sesión extraordinaria, transmiten un mensaje de aceptación a la instalación Parque Eólico.. El alcalde ya nos dijo el otro día en la comisión celebrada el 30 de Septiembre, que su grupo de gobierno, no iba a decir que no al parque.

Este documento de alegaciones hace hincapié en una serie de aspectos que deberán ser tenidos en cuenta en el desarrollo del proyecto que Sacyr está tramitando para la instalación del su Parque Eólico en nuestro valle. Una serie de aspectos que se podrían calificar como medidas compensatorias..

En otras palabras, a través de este documento, de modo implícito, el Ayuntamiento del Valle de Erro da el visto bueno a la instalación del Parque Eólico.

Haize Morea no está de acuerdo con este planteamiento.

Este parque eólico, no es ni necesario, ni está justificado, ni va a ayudar a resolver el problema de la energía.

No hay argumentos medioambientales que sustenten que iniciativas como esta vayan a ser la solución de ese proceso de transición energética que se supone que viene impulsado desde Europa.

Pero dejando a un lado, el debate del cambio de modelo energético, hay información suficiente aportada por los técnicos que han asesorado a este ayuntamiento, para al menos poner en duda que la instalación de este Parque sea un buen plan para nuestro valle:

- La falta de estudios de impacto en el sector primario,*
- la falta de estudio del impacto en el sector turístico,*
- la falta de un estudio completo y definitivo de la valoración arqueológica de la zona.*
- la falta de datos certeros, en relación a la evaluación del impacto acústico,*
- la incongruencia de un parque de este tipo con las indicaciones de la Ley Montes en relación al el uso respetuoso con el medio natural.*
- la contradicción respecto al Plan Estratégico Navarra Horizonte 2030, ya que este parque se propone fuera de las áreas eólicas preferentes y de reserva, además de estar en suelo forestal, y afectar a montes de utilidad pública,*
- la presentación de datos confusos y probablemente erróneos en relación a la superficie de hayedos afectada por el parque, según han indicado los técnicos de la asesoría municipal*
- la consideración de que el impacto del parque eólico será severo para la avifauna, tal y como se describe extensamente en el propio estudio de impacto medioambiental presentado por la empresa; en este punto estamos hablando de especies protegidas como el milano real, los murciélagos, y los buitres, entre otros.*

Lamentamos que el grupo de gobierno no haya interpretado que toda esta información fuera argumento suficiente, para poder decir a Gobierno de Navarra que el Valle de Erro no quiere este parque eólico.

Todas estamos de acuerdo en que necesitamos energías renovables. Energías renovable sí, pero no así.

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que manifiesta que su grupo si está de acuerdo con el documento y que cuando se tuvo la reunión con el Gobierno de Navarra que fueron los tres grupos, quedó evidente que Europa manda hacer una electrificación muy importante de parques eólicos, energías solares y de sus redes. Por eso, su grupo, partiendo de que es una energía limpia, entiende que se debe hacer pero estudiando, valorando y teniendo en cuenta el contenido de las alegaciones que se van a presentar, ya que plantean cuestiones de todos tipos. Creen que todo es compatible, ganadería, turismo, caza y las energías y queramos o no se van a imponer. Va a toca a este y a otros ayuntamientos y por ello dan por buenas dichas alegaciones.

Toma la palabra la concejala Sra. Nuño, que pregunta al grupo de gobierno, que ventajas o que ven de bueno para el valle, el que se lleve a cabo este proyecto, aparte de creer que finalmente va a ser una imposición de Europa, en la balanza que ven a favor. Su grupo por ejemplo lo ha analizado y a parte de un posible beneficio económico que ya lo dicen en su escrito, se trata de un proyecto que no les aporta nada y no encuentran ninguna razón para defenderlo. Contesta el alcalde que todavía es prematuro hablar de ello, pero si que cree que en fases posteriores se podrán negociar beneficios para los vecinos. Todavía es un anteproyecto y no se sabe si finalmente se hará o no.

Considera que es una zona en el sur que dentro del Valle se ve muy poco afectada, que turísticamente aporta muy poco y por tanto ante algo que se va a imponer, cree que es la mejor zona para ello, y respecto a los beneficios todavía no los ha estudiado. Toma la palabra el concejal Sr. Eciolaza que opina que aquí no se trata de decir parque si o parque no, de hecho supone que en algún momento habrá que posicionarse, ahora lo que hay es un anteproyecto sobre el que se va a presentar alegaciones y nada más, si al final se impone, ya llegará la hora de posicionarse. Las alegaciones que se pueden aportar y aprobar son las que se han presentado, realizadas por profesionales, profesionales con los que habitualmente se trabaja. Manifiesta la concejala Sra. Nuño, que las alegaciones que se van a presentar subyacentemente indican que se está a favor del parque, añadiendo la concejala Sra. Ekisoain que el tono de las alegaciones ya lo dice todo, porque han visto otras alegaciones también de profesionales que nada tiene que ver con las que aquí se han hecho. Para ellas, subyace en todo momento por el tono, la idea de que se haga aunque claro hacerlo bien, considerando que cuando se impone algo ya es muy difícil echarlo atrás y poco se puede negociar. Que parte se ve como positiva que ya que se va a hacer, se haga bien? La concejala Sra. Nuño opina que el grupo de gobierno no está entendiendo bien el procedimiento, pero en todo caso ya ha dicho y preguntado lo que quería decir y ya se le ha contestado.

Toma la palabra la concejala Sra. Remiro que quiere contestar a alguna de las cosas que ha escuchado, opina que no es el momento de abrir un debate sobre lo que manda Europa a nivel medio ambiental, siendo todos los argumentos en los que se basa el alcalde rebatibles y considera que es una pena que en esta

corporación no se haya abierto un espacio de tiempo para trabajar este tema en profundidad más allá de dos reuniones realizadas a contra reloj, el único debate en condiciones fue la reunión del 30 de septiembre. No es el día para un debate medioambiental, se podría haber trabajado mucho más y en cambio ha pasado año y medio desde que la empresa apareció con el tema y el Ayto no ha hecho nada. Respecto al tema recurrente de que es algo que va a venir y de que no los vamos a "comer con patatas", puede que sea así, pero la respuesta de otros Ayuntamiento está siendo diferente, no le dan el mismo tono de aceptación y la misma forma de actuar que la nuestra o que el grupo de gobierno está defendiendo, haciendo ver que no hay otra posibilidad pero si la hay, y las tres concejales de la oposición que representan a casi la mitad de del valle dicen que hay otras opciones como así lo han hecho otros Ayuntamientos, y no le gustaría que constara que el Ayuntamiento está haciendo esto porque no hay más remedio porque no es así. Su grupo considera que no es un mal menor como dice el alcalde, sino que por el contrario entienden que no es un buen plan para el Valle, y que se debería aprovechar el momento de las alegaciones para así manifestarlo y decirle al Gobierno de Navarra que no se quiere el parque eólico argumentando el porqué. Menciona el Sr. Eciolaza que no ha habido que posicionarse, desde el momento en que el documento está en exposición pública es para que se opine, y las alegaciones es un trámite para que la ciudadanía y las entidades locales opinen si así lo consideran. Eso conlleva un estudio de la información publicada y crear una opinión, eso, entiende, es posicionarse. Ella como concejala, considera que como representante de la ciudadanía tiene que estudiarse el documento y considerar en este caso a través de las alegaciones diciendo que se opina sobre el mismo y si se está de acuerdo o no con él. Para ella está claro que con la postura que se ha mostrado en la sesión, lo que se está diciendo es que no hay un rechazo al parque, si no digo que no lo rechazo es que pienso que es una buena idea. Las alegaciones que se están presentando no son las de los técnicos, porque los técnicos han presentado una información que se podría haber interpretado de otra forma muy diferente, por ejemplo su grupo hubiera utilizado esa información técnica para decir que ese parque no es una buena idea para el Valle. Los técnicos han presentado argumentos, y la corporación interpretamos políticamente esos argumentos para generar una opinión. Vuestra opinión es "ya que vais a venir, haced las cosas bien". Nuestra opinión es "no queremos un parque eólico" porque no lo consideramos ni justificado ni necesario y el nivel de afectación es de una envergadura impresionante. No son las alegaciones de los técnicos, son las alegaciones de la corporación las que hoy se aprueban con cuatro votos a favor, dos en contra y nuestra abstención. La orientación de las alegaciones es la que da la corporación y esa orientación ya se vio clara en la reunión del 30 de septiembre. Tras lo cual, se acuerda con cuatro votos a favor (Srs/as. Gil, Bidaurreta, Eciolaza y Garralda), dos en contra (Sras. Nuño y Ekisoain) y una abstención (Sra. Remiro):

1º.- Aprobar las alegaciones recogidas en el documento elaborado por Ekilan y Nagore Abogados & Asociados, publicado en la página web del Ayuntamiento del Valle de Erro: www.erro.es. y en la sede electrónica, para todo aquel que quiera conocerlo.

2º.- Presentar al DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO Y EMPRESARIAL, Servicio de Ordenación Industrial, Infraestructuras del Gobierno de Navarra, a través del Registro Electrónico de Navarra, el documento de las alegaciones aprobadas por la Corporación y elaborado por Ekilan y Nagore Abogados & Asociados.

Y sin más asuntos que tratar siendo las 10:30 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean 2021eko urriaren 4ko 9:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura berezia egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Juan Luis Fermin Gil Garcia, Teresa Bidaurreta, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain eta Leire Remiro Esnoz, bilkura buru alkatea, Enrique Garralda Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendari ekin baino lehen Haize Morea taldeko zinegotziak, Remiro, EH Bildu Erroibar taldeko zinegotziak, Ekisoain, eta ETI taldeko zinegotziak, Gil, bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

BAKARRA.- NAFARROA 2 HAIZE-PARKEA, ALEGAZIO JURIDIKOAK ETA INGURUMENEOAK ONARTZEA

Alkateak hitza hartu du eta esan du Nafarroa 2 Haize-Parkeari egindako alegazioei dagokienez, Udalak kontratatutako aholkulariek prestatutako alegazioak aztertu zirela batzordean, alde batetik Hector Nagorek egindakoak eta, bestetik, Ekilanez egindakoak, talde ezberdinek egindako zenbait ohar eta kontsiderazio sartzekotan geratu zela adierazi du, eta hori da, hain zuzen ere, azken dokumentuan sartu dena, eta Fermin Izcok hasieran egindako alegazioak ontzat emanaz.

Ondoren, Hector Nagore letratuak egindako azkeneko idatzia irakurri du:

UDALAK ALEGAZIOEI EGINDAKO EKARPENAK

Ekilanez eta Nagore Abogados & Asociadosek 2021eko irailaren 30eko lan-bilkuran egindako alegazio-idazkiak aztertzean, ohar osagarri hauek egin ziren, eta orain horien parte gisa jasotzen dira, eta honako hauek dira:

a) - Erasan daitezkeen putzuak inguruko baso-suteen aurkako sistemaren parte dira, eta, beraz, baldintza egokietan berritu behar dira, erabili ahal izateko.

b) - NA-2330 errepidetik sartzekak sortzen dituen zalantzak alde batera utzita (jarduerak, uholde-arriskua, etab.), ezinbestekoa da errepide hori nabarmen hobetzea, ibarreko bizilagunen sarbide nagusi bihurtu baita.

c) - Urniza hartu behar da kontuan zaratak aztertzeko, gune horretan erroldatutako pertsonak baitaude

d) - Hegazti-faunaren gaineko afekzioen azterketa ez da, zalantzarik gabe, osatu; gainera, ez da inolako aipamenik egiten uso migratzaileei buruz, horiek ehizatzeak diru-sarrera garrantzitsuak ekartzen baitizkio udalerriri.

e) – Aurreikusitako behar da Larraingoatik igotzen den bideko funtsezko hobekuntza

f)- Parkeak Erroibarko paisaian izango duen eraginari buruzko azterketa ez dago behar bezain xehatua, eta, jakina, eragin handia izango du, eta azterlan hori Ibarreko balio turistikoekin lotu behar da, garrantzitsuenetako bat paisaia baita, hain zuzen ere.

Eranskin hori aurretik aurkeztutako alegazioei erantsi behar zaie eta horiek guztiak, Ekilaneke prestatutakoekin batera, gaur onestea da hemen proposatzen dena.

Nuño zinegotziak hartu du hitza, eta irakurritakoari buruzko iruzkinen bat egin nahi duela esan du. Adibidez, NA-2330 errepidea haraneko bizilagunen sarbide nagusi bihurtu dela aipatzen dena hala iruditzen zaien guztiei, berari ez baitzaio iruditzen batzordean esan zenik. Eciolaza zinegotziak erantzun du nagusia ez bada ere, gero eta gehiago erabiltzen dela. Arraroa egin zaio useoz esaten dena, batzordea egin zenean argi geratu baitzen horrek ez zuela inolako eraginik. Iruditzen zaio irakurri denak ez duela islatzen bilera hartan mahai honetan esandakoa. Alkateak eta Eciolaza zinegotziek erantzun dute egia dela hortik ez direla usoak pasatzen, baina hori azterzea egokia iruditzen zaiela.

Testuaren onespenerari dagokionez, Nuño zinegotziak galdetu du nola egingo den, alegazioak banaka onetsiko diren ala dokumentu osoa batera. Alkateak erantzun du dokumentua osotasunean bozkatuko dela.

Ekisoain zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du EH Bildu Erroibar taldeak aurka bozkatuko duela, eta ondoren transkribatuko den idazki bat irakurri du, bere botoaren arrazoiaren berri emateko:

“EH Bildu Erroibar taldeak 1, 2, 3, 4, 5 eta 7 alegazioei ezetza ematen die baita haize-parkeari orokorrean ere, honako arrazoiengatik:

Proiektu honek bailararentzat onuragarria izan daitekeen deus ere ez dugu aurkitzen, eta ez dugu balizko onura ekonomikoaren daturik ere. Ingurumen-eraginak, aldiz, agerikoak dira (flora, fauna, paisaia, kutsadura akustikoa eta ikusmen-kutsadura).

Proiektua ez da bateragarria gure hirigintza-planak aurreikusten duen abeltzaintza-, basogintza- eta turismo-izaerako garapenarekin; ez du biztanlerik finkatuko, eta ez du lanpostu zuzenik sortuko, ezta zeharkakorik ere, agian.

Nafarroarako makroproiektuen luzamendua, eztabaida soziala eta eredu energetikoaren plangintza egokia behar direla deritzogu. Gogoratu behar da Nafarroako Gobernuak dagoeneko markatu zuela ibilbide bat Nafarroa 2030 Energia Planean, eta bertan jarraitu beharreko ildoak ezarri zirela, parke eoliko honek betetzen ez dituenak. Energia eolikoan soberakina duen erkidegoa da Nafarroa (kontsumitzen duena baino gehiago ekoizten du) eta plan horretan proiektatutako parke eolikoak eraikita daude

Beharrezkoa da energia eta kontsumo ereduaz hausnartzea eta alternatibak bilatzea proiektu txiki eta deszentralizatuen bidez (Piztu proiektua, autokontsumo proiektuak, energia komunitateak...)

Horregatik guztiagatik aurka bozkatuko dugu, uste baitugu alegazio horiek ez gaituztela ordezkatzeko, ez gure taldea ezta Erroibarko bizilagunen zati bat ere.” Nuño zinegotziak gaineratu du banaka egin izan balitz 1,2,3,4,5 eta 7 alegazioen aurka bozkatuko zutela eta gainerakoen alde, baina guztiak batera egin behar direnez, bere botoa aurkakoa izango dela.

Ondoren, Remiro zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du abstenituko dela eta Haize Morea taldearen idatzi irakurri du, abstentzioaren arrazoiak azaltzeko.

“Gaur bozkatu behar dugu Erroibarko Udalak Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dizkion alegazioen testua, SACYRek aurkeztutako Nafarroako Parke Eolikoaren aurreproiektuari buruzkoa.

Gure botoa abstentzioa izanen da.

Ezin dugu kontrako botorik eman, uste baitugu Udalaren arduragabekeria litzatekeela halako proiektu handi baten aurrean alegazioak aurkezteko duen eskubidea ez erabiltzea. Izan ere, horregatik EH Bildu Erroibar taldearekin batera, joan den abuztuko bilkura berezia bultzatu genuen. Sinestezina zen gobernu-taldearen aldetik antzematen zen pasibotasuna, eta, bereziki, alkatearen aldetik, horrelako egoera baten aurrean.

Horrelako proiektu baten administrazio-prozedura konplexua dela jakinda ere, guk ezinbestekotzat jotzen genuen Erroibarreko herritarrek ahalik eta informazio gehien izatea aurreproiektuari buruz, eta, era berean, aukera izatea aurreproiektuari buruzko iritzia emateko alegazioak aurkezteko bidearen bitartez.

Modu berean eta EH Bildu Erroibar taldearekin elkarlanean, Udal gisa, hau da Erroibarko bizilagun guztien izenean, alegazioak aztertu eta prestatzeko aukera sustatu eta proposatu genuen.

Baina ezin dugu alde bozkatu.

Ezin dugu alegazio hauen alde bozkatu gaurko bilkura berezian alkateak aurkeztu dizkigun dokumentuek Haize-Parkea jartzea onartzen dela adierazten baitute. Irailaren 30ean egindako batzordean alkateak esan zigun bere gobernu taldeak ez diola ezetz erranen parkeari.

Alegazioen dokumentu horrek Sacyrrek gure ibarrean Haize-Parkea jartzeko bideratzen ari den proiektuan kontuan hartu beharrekoak azpimarratzen ditu. Eta horiek konpentsazio-neurri gisa har daitezke.

Bertze modu batera esanda, dokumentu honen bidez, modu inplizituan, Erroibarko Udalak oniritzia ematen dio Haize-Parkeari.

Haize Morea ez dago planteamendu horrekin ados.

Haize-parke hori ez da beharrezkoa, ez dago justifikatua, eta ez du energiaren arazoa konponduko.

Ez dago ingurumen-argudiorik European ustez bultzatzen ari den energia-trantsizioko prozesu horren konponbidea horrelako ekimenak izango direla argudiatzeko.

Baina eredu energetikoaren aldaketaren eztabaida alde batera utzita, udal honi aholku eman dioten teknikariek informazio nahikoa eman dute, parke hori gure bailararako plan egokia ote den zalantzan jartzeko, gutxienez:

- Lehen sektorean izan dezakeen inpaktuaren azterketarik ez dago*
- Turismo sektorean izan dezakeen inpaktuaren azterketarik ez dago*
- Eremu horretako arkeologiaren balorazioaren ikerketa osoa eta behin betikoa ez da egin.*
- Inpaktu akustikoaren ebaluazioari buruzko datu zehatzik ez izatea.*
- Horrelako parkea bat ez etortzea Mendiei buruzko Legearen oharrekin, ingurune naturalaren errespetuzko erabilerari dagokionez*
- Nafarroa 2030 Helmuga Plan Estrategikoarekiko kontraesana; izan ere, parke hori lehentasunezko eremu eolikoetatik eta erreserbakoetatik kanpo proposatzen da, baso-lurzoruan egoteaz eta onura publikoko mendiei eragiteaz gain.*
- Parkeak eragindako pagadien azalerari buruzko datu nahasiak eta, ziurrenik, okerrak aurkeztea, udal-aholkularitzako teknikariek adierazi dutenez.*
- Parke eolikoaren inpaktua larria izango da hegazti-faunarentzat, enpresak aurkeztutako ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean azaltzen den bezala; puntu honetan, espezie babestuez ari gara, hala nola miru gorriaz, saguzarrez eta saiez, besteak beste.*

Sentitzen dugu gobernu taldeak ez interpretatu izana informazio hori guztia argudio nahikoa izan zenik Nafarroako Gobernuari esan ahal izateko Erroibarrek ez duela parke eoliko hori nahi.

Denok ados gaude energia berriztagarriak behar ditugula. Energia berriztagarria bai, baina ez horrela.

Garralda alkateak hartu du hitza, eta adierazi du bere taldea ados dagoela dokumentuarekin, eta Nafarroako Gobernuarekin bilera egin zenean, hiru taldeetako ordezkariak bertan zirela, argi geratu zela Europak oso elektrifikazio garrantzitsua agintzen duela parke eolikoetan, eguzki-energietan eta haien sareetan oinarritua. Horregatik, bere taldeak, energia garbia dela kontuan hartuta, uste du egin behar dela, baina aztertu, baloratuko eta kontuan hartuko

dela aurkeztuko diren alegazioen edukia, era guztietako gaiak planteatzen baitituzte. Dena bateragarria dela uste dute, abeltzaintza, turismoa, ehiza eta energiak, eta, nahi ala ez, inposatu egingo dira. Udal honi eta ondorengoei erabakia hartzea egokituko zaie eta alegazio horiek ontzat ematen dituzte.

Nuño zinegotziak hartu du hitza, eta gobernu-taldeari galdetu dio ea zer abantaila edo zer on ikusten dioten ibarrari proiektu hau gauzatzeak, azkenean Europaren inposizioa izango dela uste izateaz gain. Balantzan, zer ikusten dute alde? Bere taldeak, adibidez, aztertu egin du, eta, idazkian jada esaten duzuen onura ekonomikoaz gain, proiektuak ez die ezer ematen eta ez dute inolako arrazoirik aurkitzen hori defendatzeko. Alkateak erantzun du oraindik goizegi dela horretaz hitz egiteko, baina uste duela ondoko faseetan bizilagunentzako onurak negoziatu ahaliko direla. Momentuz aurreproiektua da eta oraindik ez dakigu eginen den ala ez.

Bere ustez, ibarraren hegoaldean oso eragin txikia duen eremu bat da, turistikoki ekarpen txikia egiten duena, eta, beraz, inposatuko den zerbaiten aurrean, horretarako eremurik onena dela uste du, eta, onurei dagokienez, oraindik ez ditu aztertu. Eciolaza zinegotziak hartu du hitza eta esan du bere iritziz, hemen kontua ez dela parkea bai edo parkea ez esatea; izan ere, noizbait iritzia eman beharko da; orain, aurreproiektu bat dago, eta horren gainean alegazioak aurkeztuko dira, besterik ez, azkenean inposatu egiten bada, iritsiko da jarrera hartzeko ordua. Aurkeztu eta onar daitezkeen alegazioak, profesionalak egin dituzte, hain zuzen ere Udalak normalean lan egiten duen profesionalak. Nuño zinegotziak adierazi du aurkeztuko diren alegazioek, azpian, parkearen alde daudela adierazten dutela, eta Ekisoain zinegotziak gaineratu du alegazioen tonuak dena esaten duela, beste alegazio batzuk ere ikusi dituztelako, profesionalenak, hemen aurkeztu direnekin zerikusirik ez dutenak. Haien ustez, tonuaren arabera, beti dago ideia hori, hau da, ondo egitea, noski, zerbait inposatzen denean atzera botatzea oso zaila dela eta ezer gutxi negoziatu daitekeela kontuan hartuta. Zer da positiboa? Egingo denez, ongi egitea? Nuño zinegotziak uste du gobernu taldeak ez duela ongi ulertu prozedura zein den, baina berak esan du eta galdetu du nahi zuena eta erantzun zaio.

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta entzun dituen gauzetako bati erantzun nahi dio. Bere iritziz, ez da unea Europak ingurumen mailan agintzen duenari buruzko eztabaida bat irekitzeko, eta alkatearen argudio guztiak ezeztagarriak dira. Bere ustez, pena da udalbatza mailan gai hau sakonki lantzeko denbora-tarterik ez ireki izana; erlojuaren kontra egindako bi bilerez gain, irailaren 30eko bilera izan zen eztabaida bakarra, behar bezala egina. Ez da ingurumen-eztabaidarako eguna, askoz lan gehiago egin zitekeen, eta, aldiz, urte eta erdi igaro da enpresa gaiarekin agertu zenetik eta Udalak ez du ezer egin. Etorriko den zerbait dela eta nahitaez egingo dela, baliteke hala izatea, baina beste udal batzuen erantzuna desberdina izaten ari da, ez diote onarpen-tonu bera ematen, ezta gurea edo gobernu-taldea defendatzen ari den jarduteko modu bera ere, ikusaraziz ez dagoela beste aukerarik, baina egon badago, eta

oposizioko hiru zinegotziek, bailararen ia erdia ordezkatzeko dutenek, beste aukera batzuk badaudela diote, beste Udal batzuek dioten bezala, eta ez litzaioke gustatuko hemen agertzea Udala hau egiten ari dela beste aukerarik ez dagoelako, ez baita egia. Bere taldearen ustez, ez da gaitz txikia, alkateak dioten bezala, baizik eta, aitzitik, uste dute ez dela plan ona ibarrarentzat, eta alegazioak aurkezteko unea baliatu beharko litzatekeela horrela adierazteko eta Nafarroako Gobernuari parke eolikoa ez dela nahi esateko, zergatiak azalduz. Eciolaza jaunak aipatu du ez dela jarrerarik hartu behar izan, dokumentua jendaurrean dagoen unetik, iritzia emateko dela, eta alegazioak izapide bat dira herritarrek eta toki entitateek iritzia eman dezaten, hala uste badute. Horrek esan nahi du argitaratutako informazioa aztertu behar dela eta iritzi bat sortu behar dela, eta horrek, bere ustez, jarrera bat hartzea dakar. Berak, zinegotzi gisa, uste du, herritarren ordezkari gisa, aztertu egin behar dela dokumentua, eta, kasu honetan, alegazioen bidez aztertu behar dela, esanez iritzia ematen dela eta harekin ados dagoen ala ez. Haren ustez, argi dago bilkuran azaldu den jarrerarekin esaten ari dena dela ez dela parkea errefusatzeko. Ez badut esaten ez dudala baztertzeko, ideia ona dela uste dut. Aurkezten ari diren alegazioak ez dira teknikarientzat, teknikariek beste era batera interpreta zitezkeen informazioa aurkeztu dutelako; adibidez, bere taldeak informazio tekniko hori erabiliko zutekeen parke hori ibarrarentzat ideia ona ez dela esateko. Teknikariek argudioak aurkeztu dituzte, eta korporazioak argudio horiek politikoki interpretatzen dituzte iritzi bat sortzeko. Zuen iritzia hau da: “etorriko zaretenez, egin gauzak ongi”. Gurea beste hau: “ez dugu haize-parkerik nahi”, ez dagoelako justifikatua eta beharrezkoa ez baita eta haren eragina izugarria baita. Ez dira teknikarien alegazioak, gaur onartzen diren alegazioak udalbatzarenak dira, aldeko lau botoz, aurkako bi botoz eta gure abstentzioz onartuak. Alegazioen orientazioa korporazioak emandakoa da, eta orientazio hori argi ikusi zen irailaren 30eko bileran.

Ondoren, aldeko lau botoz (Gil, Bidaurreta, Eciolaza eta Garralda), aurkako bi botoz (Nuño eta Ekisoain) eta abstentzio batez (Remiro), honakoa erabaki da:

1º.- Ekilane eta Nagore & Asociadosek prestatu duten dokumentuan bildutako alegazioak onartzea eta Erroibarko Udalaren web orrian (www.erro.es) eta egoitza elektronikoan argitaratzea, nahi duen orok ikus ditzan.

2º.- Ekonomia ETA ENPRESA-GARAPEN Departamentuari, Nafarroako Gobernuako Industria Antolamenduko eta Azpiegituren Zerbitzuari, Nafarroako Erregistro Elektronikoaren bitartez, Udalbatzak onartutako eta Ekilane eta Nagore Abogados & Asociadosek egindako alegazioen dokumentua aurkeztea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 10:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.

